

Matematika, hezkuntza eta generoa gurutzatzen diren lekuak. Ahots feministek lagundutako kartografia bat

Tesiaren egilea: Uzuri Albizu Mallea

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

Doktorego-programa: Ikasketa feministak eta generokoak

Jakintza-arloa: Ikasketa feministak eta generokoak, Matematikaren didaktika

Tesi-zuzendaria: Mila Amurrio Velez eta Marta Luxán Serrano

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesi honek matematika-hezkuntzan generoak hartzen dituen formak arakatzeko, gaurko zein etorkizuneko hezitzaileen diskurtso, ekintza eta esperientzietan oinarrituz. Matematikaren, hezkuntzaren eta generoaren arteko gurutzatzeak garatzen diren eguneroko baldintzak aztertzen ditu, autoreak ikasleekin partekatzen duen matematika-ikasgela agertoki behinentzat hartuta. Plano teorikoan, matematikaren eta generoaren arteko elkarreragin historikoen inguruko hausnarketa bat proposatzen du, baita matematikak zein matematika-hezkuntzak gizartearen modernizazioan izandako paperaren ingurukoa ere. Teorizazio horiek agerian uzten dute, besteak beste, ezagutza matematikoaren eta matematika-hezkuntzaren izaera soziala. Plano metodologiko eta epistemologikoari dagokionez, kokaleku historiko eta politiko jakin batzuek presentzia berezia dute ikerketan, erdigunean jartzen baititu genero-posizio subalternoetatik edota posizionamendu feministetatik diharduten ahotsak. Halaber, Foucaultek boterearen inguruan egiten duen irakurketari jarraituz, matematika-hezkuntzaren barneko genero-dinamikak ezaugarritzeaz gain, dinamika horiei aurre egiteko saiakerak ere nabarmentzen ditu. Hala, matematikak gizartearen zein eskolan duen pribilegio-posizioa problematizatzen du tesiak, eta genero-estereotipoek matematika-hezkuntzan duten presentzia eta inpaktua ezaugarritzen. Matematika-ikasgeletan aurki daitezkeen partaidetza-eredu batzuk ere deskribatzen ditu, eta inklusioaren galga ala akuilu diren ebatzen du. Azkenik, matematika-hezkuntzan hutsegitea kudeatzeko zenbait moduk maskulinitate hegemonikoarekin dituzten loturak identifikatzen ditu, zaurgarritasunari leku egiteak eskaini ditzakeen inklusiorako aukerak esploratuz orobat. Finean, matematika-hezkuntzaren barneko genero-desberdinkerien ardura emakumeen gain kokatzeko joera asimilazionisten aurrean, tesiak foku-aldaketa bat proposatzen du, matematika-hezkuntza inklusiboagoa izango bada, eraldatu beharrekoa diziplina bera dela argudiatuz.